

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko sozietate eta instituzio desberdinekin egingo dugu lan. Alde batetik bazkide batzuk izango ditugu; Espainiako eta atzerriko **unibertsitate desberdinekin egingo ditugu akordioak**, horrela hauek psikologia ikasleek praktikak egin ditzakete gure eskolan, hau garrantzitsua da, izan ere praktikak egiten dutenek gure eskolaren zati handia izango dira eta honek diru-sarrerak emango dizkigu eta



unibertsitateentzat onuragarria izango da aukera gehiago izango dituelako eta diruaren zati bat haientzat izango delakoa. Gure ustez hau oso ideia ona da baina arriskutsua, negozio berri bat garelako eta agian uniberstitateak beldurra izango dutelako haien ikasleak gurekin uzteko, baina gure plana haientzako oso konkretua da eta horregatik ez dago beldurra edukitzeko arrazoirik. Beste aldetik **udalarekin akordioak** behar ditugu haiek gure proiektua argitaratzeko eta horrela gure burua ezagutzera emangu dugu, udalak eta estatua gaur egun ikusi dugun bezala garrantzia eman nahi diote helburu sozial bat duten proposamenei, industriari etab laguntza asko eman diotelako baina orain pertsonen ongizatean zentratuko direla dirudi, adibidez COVID-a dela eta hau askoz garrantzitsuagoa da. Osasun Ministerioak Osasun Mentaleko Ekintza Plana egin du aurten, eta 30 milioi euroko aurrekontua du guztira, autonomia-erkidegoei emandako dokumentazioan ageri denez.

Hornitzaileak beharrezkoa dira ere bai gure eskola funtzionatzeko. Gure eskolan material konkretu batzuk beharko ditugu, testu liburuak ez ditugu eukiko baina



koadernoak eta idazteko materiala erabiliko dugu. Horregatik 'Papelería Goya' izango da gure hornitzailea, material guztia daukatelako eta enpresa handi bat direlako, horregatik gu hornitzeko nahikoa izan daiteke. Beste alde batetik, **"liburutegi" bat izango dugu** (ez da liburutegi bat baina apal batzuk izango ditugu liburu desberdinekin), batez ere psikologiari buruzko liburuak eta jakintza jeneralari buruzko liburuak eta hiztegiak. Honetarako, liburudenda desberdinak kontratatuko ditugu,

adbidiez; Mazedra, La casa del Libro,... Posiblea bada **udalari eskatuko diogu itun bat egitea Bilbon dauden liburutegi desberdinetatik liburuak hartzeako.**

Udan gure langileak oporrak izango dituzte, horregatik pentsatu duguna unibertsitatean dauden ikasleak irakasle bihurtzea posible izan daitekeela, unibertsitatean ez direlako egongo hilabete horietan eta ez dute behar hainbeste diru soldata batean, praktikan egongo direlako, eta langile bat soldata handiagoa bat behar du.